

Denboraren makina
Robespierrek
ez du estatuarik

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Morau ta Agotak
Kalamidadiak
diskoaz solasean

ARGIA

er d i k o k a i e r a

kultura eta aisia

Lost in Bilbao

"Hirien eskaintza kulturala hain da zabala, ezen antolatzen diren gauzetatik erdiaz ere ez zaren enteratzen". Rubén Sánchez Bartzelonakoa da eta 32 urte ditu. Kosmopolita hitza erabiltzen du hiritar esan beharrean, agian berak ukitutxo kosmopolita hori ere baduelako. Hamar gehi bat hiritan ibilitakoa da, baina badirudi Bilbon geldialdi luzetxoa egingo duela, egitasmo interesgarria hasi baitu *botxoan*: Lost in Bilbao (www.lostinbilbao.tv), "Bilboko kultura eta aisialdiaren inguruko magazina, 2.0 Telebista formatuan eskainia".



Hirian ezer ez galtzeko

ANDER EGILUZ

Argazkiak: Iñigo Azkona

Zelan sortu zen Lost in Bilbao?

RUBÉN SÁNCHEZ. Bilbora bizitzera etorri nintzeanean, ez nuen hiria batere ezagutzen; ez nekien zer egin nezakeen, zer izan zitekeen interesgarri... Orduan hasi nintzen hiriak eskaintzen zuenari jaramon egiten.

Hasieran blog bat egitea otu zitzaidan Bilbon antolatzen ziren gauzen inguruan. Ez zen oso ideia originala, baina gauza pertsonala zen, idazteko ohiturari eustearren hiria ezagutzen nuen bitartean. Ideia blog izatetik bideoblog izatera pasatu zenean Cristina, Libe eta Garazirekin harremanean jarri nintzen, eta gauzak prestatzen hasi ginen.

Lost in Bilbao, hala ere, ez da bideoblog pertsonala. Sarean daramatzan zazpi hilabeteotan profesionalizatzen joan da bost laguneko lantaldea osatu arte. Sánchez-en zuzendaritzapean, Libe Otegi tolosar kazetariak aurkezten du saioa, Cristina Fernández edukiaz eta gidioiaz arduratzen da, Garazi Rodríguez da multimedia arduraduna eta Aiora Kintana, Arte Ederretako ikaslea, praktiketan ari da.

Astean behin grabatzen dute saioa hurrengo zazpi egunetan Bilbo Handian gertatuko direnen berri emanez. Musika, antzerkia, dantza, zinema, artea, diseinua... kulturaren forma guztiak uztartzen saiatzen dira, beti ere Bilbo edo bilbotarrekin zerikusia dutenak. "Bilbon bertan gertatzen direnez gain, bilbotarrek edonon antolatutakoak ere zabaldu gura ditugu",

Lost in Bilbaoko lantaldeak lagun arteko giroan grabatzen ditu astero programak.

dio zuzendariak. "Hasiberriei ere atea irekitzen saiatzen gara. Ezagunak direnek ez dute laguntzarik behar, leku guztietan agertzen dira", gehitu du Libek. "Joera soziala dauka programak".

Blogosferan ere oihartzuna izaten ari da boskote honen egitasmoa. Javier Martín Loogic.com-eko arduradunak, historiako lehenbiziko "metrobideoblog" izenarekin bataiatu du proiektua. Alegia, metropoli bati dedikatutako lehen bideobloga. "Asko poztu ginen Loogic-eko hitzak irakurtzean" dio Sánchezek, "eta egia esan, asko bilatuta ere, ez dut Interneten hiri bati zuzendutako beste bideoblogik aurkitu".

Agenda kultural baten lana egiten duzue azken finean, eta badaude beste asko. Zer dauka Lost in Bilbaok besteek ez dutena?

R. SÁNCHEZ. Internetek irudia, soinua, testua eta estekak eskaintzen dizkizu; den-dena daukazu pantaila berean. Kontzertu bat edo erakusketa bat iragartzen dugunean, alboan daukazu ekin-tza horren webgunera doan esteka zuzena. Hori eta gure ikus-entzuleekin dugun etengabeko *feedback*-a dira gure berezitasunak.

Zer motatako ikusleak dituzue? Nori zuzenduta dago Lost in Bilbao?

R. SÁNCHEZ. Hasieran, botila batean sartu eta itsasora botatako mezuaren modukoa zen. Ez genekien norentzat emititzen genuen, ezta jendeak jarriko zigan ere. Baina jendeak jaramon egin digu! Agian agenda kulturala izateko oso independenteak garelako, lagunak arteko proposamenen antza dutelako geurek. Eta Bilbon, hiriari buruzko kate bat Interneten egotea nahiko berritzailea delako.

Zer da Bilbo zuentzat?

R. SÁNCHEZ. Bilboko gauzarik onena bilbotarrek dira, jendea eta hemen ditudan lankideak. Hirigunea ere oso polita da; ez dauka zerikusirik deskribatu zidaten hiri gris eta ketsuarekin.

Bilbon kultura *underground* oso indartsua dago. Lagun asko dago ohiko giroetatik aparte milaka gauza egiten. Hemendik gutxira eztanda egingo du horrek guztiak, eta Bartzelonan duela hogeita bat urte gertatu zen bezala, abangoardia hiri bihurtuko da.

Ibaizabalgo hiribildua azken hamar urteetan jasaten ari den bilakaeraren ondorio izan daite-



ke Rubénen iritzia, ala bere moduko jendearen ondorio hiriaren modernizatzea. Edozein dela ere, argi dago L.I.B.ekoek Bilbori beste ukitu bat ematen diotela.

**Lost in Bilbao ikusita nahiko *cool* ematen du hiriak; Rubén Bartzelonakoa izateak ez nau bate-
re harritu...**

LIBE OTEGI. Asko nabaritzen da Rubének begi desberdinez ikusten duela Bilbo, kanpotar baten begiez. Estetika aldetik ere, L.I.B. desberdina da. Ez dauka ohiko irudi euskalduna. Baina Bilbo, berez, bada gero eta *cool*-agoa. Xarma berezia dauka, eta identitate oso fuer-tea... horregatik zaila da integratzea. Halere, behin integratuta oso ondo zaude.

R. SÁNCHEZ. Bilbo kontraste handiko hiria izan-go da: betiko ohiturak jende berriatzaileare-kin nahastu egingo dira. Hiri txikia da, baina oso bizia; gaitasun ikaragarria du.

Lost in Bilbao oraindik ez da inon iragartzen; Internetetik nahikotxo miatu behar da zuengana heltzeko, eta webgunean beta bertsioa dela argi esaten duzue. Noiz hasiko zarete bozgorailuare-kin emititzen?

R. SÁNCHEZ. Orain arteko guztiak jendearen erantzuna ezagutzeko egin ditugu, baina bagaude behin betiko bertsioari azken ukituak ematen. Laster estreinatu gura dugu L.I.B. berria. Atal berriak, programa luzeagoa, babes-leak bilatuko ditugu, webgunea iragarri egingo dugu...

GARAZI RODRÍGUEZ. Herrikoia goa egin gura dugu saioa; kalera atera gura dugu kamera, astero galdera bat egingo diegu bilbotarrei, elkarrizketak ere maizago egin gura ditugu [Txuma Murugarreni egindako elkarrizketa oso interresgarria iruditu zaio kazetari honi], Bilboko dendarien inguruko erreportajeak sartuko ditugu...

Babesleak bilatuko dituzuela esan duzu Rubén... Horri buruz ere galdetu behar nizuen: Creative

Commons lizentziapean egiten duzue lan eta publiztaterik ez daukazu... dirua nondik ateratzen duzue?

R. SÁNCHEZ. Argi eta garbi esateko musu-truk gabiltza lanean; txakur txikirik ere ez daukagu. Eta diru gabe mota honetako edozein egitas-mo hilda dago. Hala ere ez dakigu oso ondo zelan egin babesleen kontua, ez baitugu kutsu independentea galdu gura. Programako atal batzuk promozionatuak izan daitezke... ez dakigu oraindik zehatz-mehatz zelan egin.

Bestalde Copyleftaren filosofia oso intere-santea da, askozaz arinago zabaltzen baita zure produktua. Jende gehiagok ezagutzen zaitu eta horixe da gura duguna. Gainera besteek gure lanak erabili ahal izatea gustatzen zaigu, egilea nor den aipatuta, noski.

Programan agertzen den sofa gorrian jesa-rrita erantzun diete galderei. Behin bukatu-ta, lau gauza prestatu eta asteko saioa gra-batzen hasi dira. "Lehenengo euskarazkoa grabatuko dugu, eta gero gaztelaniaz, ados?", diotso Libek Rubéni. Bizpahiru hartualdi grabatu dituzte eszena bakoitze-ko, eta denen artean aukeratu dute gustu-koena. Argi dago zergatik ematen duen lagunen arteko programa; lagunen artean egina delako.

Barre handiak egiten dituzte Libe trabatzen denean. "Baina memoria ikaragarria dauka. Gidoi guztia buruz ikasten du, eta askotan, eszena bakoitzeko hartualdi bakarrarekin gra-batu izan dugu programa osoa" aitortu du Cristina Fernándezek. "Telepronter bat egin-go dugu halere, Liberi laguntzeko" esan du Rubének. Eta egin egingo dute, ez erosi, aur-kezlearen aurrean dauden argi hotzeko fokuen antzera: eskuz eginak dira. Honek guztiak berpiztu lezake Bilboko kaleetatik gal-tzearen plazera... Lost in Bilbao. ■

www.argia.com/bideoak

helbidean, elkarrizketaren parteak bideoan.



URRUTI SPORT

PARAFENTE IKASTAROA
ETA BI LAGUNENTZAKO HEGALDIAK

Jose María Soria 20 • 20013 Donostia
Tel/Faxa: 943 27 81 96
e-posta: urruti@urruti.com • www.urruti.com



artez

euskara planak	euskal papergintza	itzulpenak
trebakuntza	bulgo materiala	hainbat hizkuntza
hizkuntza aholkularitza osoa	postalak, agendak	zuzenketak, egokitzenak
enpresak, udalak, merkataritza...	inprimakiak, ziguilak...	teknikoak, komertzialak...

Luzarra, 102 • 48014 Deustu (Bilbao) • 1+34 94 448 00 00 • www.artez.net